

## Zebren marrak, intsektuetatik babesteko

Ikertzaileek zenbait hipotesi proposatu izan dute zebren marren funtzioa azaltzeko. Besteak beste, kamuflatzeko, beroari aurre egiteko eta intsektuak uxatzeko balio dutela iradoki dute. Orain, behiekin egindako ikerketa batean, frogatu dute [zebra-itxura izatea eraginkorra dela intsektuen zitzadak saihesteko](#).

Japonian egin dute ikerketa, hiru behi-talderekin: behi zuriak marra beltzez margotuta, behi beltzak marra beltzekin, eta behi beltzak marrarik gabe. Horrela, margoak izan dezakeen eragina baztertu dute.



Zebra-itxurako larruzalak intsektuak uxatzen dituela frogatu dute. ARG.: Kojima T. *et al.*

Ikertzaileek baieztatu dute zebren itxuran margotutako behiek gainerako bi taldeetakoek baino askoz ere zitzada gutxiago jaso dituztela. Mandeuli gutxiago jarri zaizkie gainean (% 50 gutxiago), eta ez dute besteek adina mugimendu egin behar izan intsektuak uxatzeko. Horrek, gainera, lasaiago egoten lagundu die. Emaitzak aintzat hartuta, ikertzaileek iradoki dute behiak marraz margotzea metodo egokia izan daitekeela intsektizidak ordezkatzeko. ●

## Diferentzia sozioekonomikoen isla hondakin-uretan

Australian egindako ikerketa batek agerian utzi du hondakin-uretako substantzia kimikoen eta dietaren adierazleek lotura zuzena dutela maila sozioekonomikoarekin. Astebetez sei estatutako urak analizatuta, ikertzaileek ikusi dute maila sozioekonomiko altuko jendea bizi den lekuetako uretan kafe-, alkohol- eta bitamina-kontzentrazio altuak daudela. Aldiz, maila sozioekonomiko baxukoak bizi diren eremuetan, antidepresiboak eta opioideak nabarmentzen dira, baita odoleko presio altua tratatzeko erabiltzen den botika bat, eta mina kentzekoak.

Horrez gain, eremu pobreetan zitrikoen eta zuntza-  
ren kontsumoa aberatsetan baino apalagoa dela ondorioztatu dute. Ez dute alderik ikusi, ordea, antibiotikoen eta gozagarri artifizialen kontsumoan. [PNAS aldizkarian argitaratu dituzte ikerketaren emaitzak](#). ●



ARG.: CSIRO.